



Desegiten Ikasi: Errealitate Inklusiboa Eraikitzeko, Sar Zaitetz Lanbide Heziketa Egokituaren Gurpilean!



Hezkuntza inklusiboa zure eskuetan.

Uzt. 09 2025

Kod. H12-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 09 2025

Kokalekua

Izarraitz Lanbide Heziketa LHII

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Eraiki al dezakegu hezkuntza sistema bat non pertsona oro bere gaitasunen eta erritmoaren arabera hezi eta garatu ahal den?

Eraiki al dezakegu gizarte bat non aniztasuna ez den oztopo eta aukera izan daitekeen?

Lanbide Heziketa Egokituak aukera paregabea eskaintzen die aniztasun funtzional kognitiboa duten pertsonari, bai hezkuntza bai lan esparru inklusiboagoak eraikitzeko. Proiektu honen helburua lanbide heziketako sisteman inklusio eredu bat garatzea eta hedatzea da, ikasle guztien behar eta gaitasunetara egokitutako ibilbide pedagogikoa eskainiz lan mundu egokitura salto egin ahal izateko. Sar zaitez Lanbide Heziketa Egokituaren Gurpilean! Gelditzen ez den gorpila, inklusioaren gorpila.

Gurpil honek Hasierako Lanbide Heziketako izaera du, lau ikasturteetara luza daitekeena; guztiz malgua eta norbanakoari egokitutakoa. Oinarrizko gaitasunaz gain, lanbide kualifikazio aukera ezberdinak eskaintzen dira.

Bide egokiak diseinatzen badira pertsona bakoitzaren gaitasunak garatzeko, ikasleak hezte eta trebatzea posible da. Pertsona guztiok komunitatean ekarpenak egin ditzakegu, eta gainera, egin egin behar ditugu.

Uda Ikastaro honetan parte hartuz, hezkuntza aldaketarako pausoa emango duzu, eta inklusio ereduaren partaide izango zara.

"Gogoratu desgaitasun handiena ezjakintasuna dela".

Helburuak

Aniztasun funtzional kognitiboa duten ikasleei zuzendutako lanbide heziketako inklusio ereduaren aurkeztea.

Hezkuntza sistemaren eraldaketan parte hartzeko eztabaida sortzea, ikuspegi pedagogiko eta sozial herritzaile batetik.

Lanbide Heziketa Inklusiboaren erronka eta aukerak aztertzea, kasu praktikoen bidez.

Tokiko eta nazioarteko esperientziak eta aliantzak partekatzea, Marea Urdina elkartarekin elkarlanean garatutako ereduaren azpimarratuz.

Lankidetzak



Programa

2025-07-09

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Jarrai dezagun etorkizuna eraikitzen ... Miren Otero Errazu Hezkuntza Saila - Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko zuzendaria
09:15 - 10:15	“Desegiten Ikasi: Errealitate Inklusiboa Eraikitzeko. Sartu Zaitetz Lanbide Heziketa Egokituaren Gurpilean!” Isabel Mendiguren Laca Hezkuntza Saila - Ikaskuntza Berezien Zuzendaria Miren Otero Errazu Hezkuntza Saila - Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko zuzendaria Arantxa Larrañaga Maiz Hezkuntza Saila - Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko idazkaria Mikel Sarriegi Etxeberria ADEGI - Talendu eta Formakuntza Zuzendaria Unai Andueza Iraeta Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Foru Diputatua ARITZ ORBEGOZO Etxenagusia Mare Urdina - Marea Urdina erakundeko lehendakaria
10:15 - 11:45	“Lan eremu ezberdinetako kasu praktikoen aplikazioak 1” ARITZ ORBEGOZO Etxenagusia Mare Urdina - Marea Urdina erakundeko lehendakaria
11:45 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:00	“Lan eremu ezberdinetako kasu praktikoen aplikazioak 2” Miren Otero Errazu Hezkuntza Saila - Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko zuzendaria
13:00 - 13:30	Itxiera Mahai ingurua taldeka sailkatuta. Talde bakoitzean erakunde ezberdinetako kideren bat egotea aurreikusten da. Miren Otero Errazu Izarraitz Lanbide Heziketa LHII - Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko zuzendaria

Zuzendaritza



Miren Otero Errazu

Izarraitz Lanbide Heziketa LHII

HEZKUNTZA SAILA Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko zuzendaria

Irakasleak



Unai Andueza Iraeta

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa, Director General de Proyectos Estratégicos

Goi mailako industri ingeniarietza ikasketak Nafarroako Unibertsitateko TECNUNen eta Executive MBA Deustuko Unibertsitatean. Bere lan ibilbidea makina erreminta arloan hasten du, Ideko Zentro Teknologikoko proiektu kudeatzaile gisa lehenengo, eta Danobat Taldean negozioen garapen arloan ondoren. Deustuko Unibertsitatean Microeconomics of Competitiveness, enpresen lehiakortasunaren eta lurraldeen garapenaren inguruan sakontzen duen kurtsoa egin eta gero, Tolosaldea Garatzen S.A.-n eskualdeko garapen agentzian hasten da lanean, bertako lehiakortasun eta sustapen industrialeko sailaren arduradun gisa. 2020aren hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiko lantaldera gehitu eta gaur egun, erakundeko Proiektu Estrategikoetako zuzendaria da.



Arantxa Larrañaga Maiz

HEZKUNTZA SAILA Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko idazkaria



Isabel Mendiguren Laca

HEZKUNTZA SAILA Ikaskuntza Berezien Zuzendaria



ARITZ ORBEGOITIA Etxenagusia

Marea Urdina

Marea Urdina Erakundeko Lehendakaria



Miren Otero Errazu

Izarraitz Lanbide Heziketa LHII

HEZKUNTZA SAILA Izarraitz Lanbide Heziketa LHII-ko zuzendaria



Mikel Sarriegi Etxeberria

ADEGI

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua. Gaur egun ADEGI Gipuzkoako Enpresen Elkarteko Prestakuntza eta Talentu zuzendaria da. UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko, Lanbide Heziketako Zentroetako Patronatueta eta Gizarte Kontseiluetako eta Lanbideko Administrazio Kontseiluko kide da, besteak beste. Era berean, hamar urte baino gehiagoz Ekonomialarien Euskal Kontseiluko kide izan zen eta Gipuzkoako Ekonomialarien Euskal Elkargoko lehendakari izan zen.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-09 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	29,00 EUR
UIK euskaraz	-	41,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	35,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	29,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	35,00 EUR
Elkar	-	35,00 EUR

Kokalekua

Izarraitz Lanbide Heziketa LHII

Altamira auzoa, z/g 20720 Azkoitia, Gipuzkoa

Gipuzkoa